



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

116. zenbakia

2022ko otsailak 11 – otsailak 24

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

EquiLing proiektuaren ikerketa-mintegian parte hartu du Soziolinguistika Klusterrak

Galizia, Katalunia, Madril eta Euskal Herriko ikertzaileekin batera, babesguneei eta agentziari buruzko gogoeta-saioak egin dira otsailean Madrilen. Otsailaren 18tik 20ra, "Kontzientzia soziolinguistikotik agentzia kolektibora" izeneko ikerketa-mintegia burutu da eta hor izan zen Maialen Iñarra SLK-ren izenean.

Gipuzkoako hizkuntza aniztasuna ezagutu eta euskararen kohesio ahalmena aldarrikatzeko ikus-entzunezko sorta

Aldundiak eta Soziolinguistika Klusterrak sei bideo labur zabalduko dituzte datozen egunotan sare sozialen bidez. Bideo labur sorta honetan, Gipuzkoan bizi diren jatorri ezberdinetako biztanleen errealitateak ezagutzeko aukera izango dugu; euskararekin eta bakoitzaren ama-hizkuntzekin dituzten bizipenak azalduko dituzte.

Euskara Kirolkide

[BERRIA] Euskara Kirolkide da 2020an kirol eremuan abiatu zen egitasmoaren izena. Soziolinguistika Klusterrak koordinatuta eta Eusko Jaurlaritzak zein Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduta, haur, nerabe eta gazteen euskararen erabilera bultzatzea du jomuga.

Hezkuntza soziolinguistikoa: Euskal Herrian han eta hemen dauden material eta baliabideen bilketa, azterketa eta sailkapena

[Hik Hasi] Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultatean, Bigarren Hezkuntzako Masterrean Izaro Arrutik eta Sandra Prietok elkarrekin egindako MALaren laburpena ekarri dugu 'Ekarpenak' atalera. Soziolinguistika klusterraren Txillardegi-Hausnartu saria irabazi du lan honek.



Ikerketak

Call for SALIS PhD Scholarship 2022

[Dublin City University] We are particularly interested in receiving research proposals in the following areas: Applied Linguistics; Cultural Studies; Intercultural Studies, Migration Studies; [...] and Interdisciplinary Research.

Kirola eta euskara - parte hartu ikerketa honetan!

[Kayleigh Karinen, twitter bidez] Euskal Herrian bizi bazara eta kirolen batean parte hartzen baduzu, mesedez hartu denbora inkesta hau betetzeko. Bertan, kirolean erabiltzen diren praktika eleaniztunei buruzko galderak aurkituko dituzu.

Euskarabentura Espedizioa 2021 - Memoria sonora

[EuskarAbentura] EuskarAbentura Espedizioa 2021eko hainbat jzioquitarren (gazte parte-hartzaileak) hizkuntzarekiko hausnarketak jaso ditugu memoria sonoro honetan. Ikusi zein izan den emaitza!

Norway: Further improvement needed to revitalise and develop the most endangered minority languages

[Council of Europe] In a new evaluation report, the Committee of Experts of the European Charter for Regional or Minority Languages, recommends as a matter of priority, that the Norwegian authorities improve the means for revitalisation and development of the most endangered languages.



Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

Hamasei urte bitarteko neska-mutilak eta hizkuntza politika egokiak

[Udaltop] Udaltopen hamalagarren edizioa 2022ko maiatzaren 12an eta 13an izango da eta 16 urte bitartekoentzat hizkuntza politika egokiak antolatzeko jarraibideak ematea izango du aurtengo ekitaldiak xede.

Webinar Series on Gaelic and Sámi

[Bòrd na Gàidhlig] There will be a webinar series taking place on the following weeks, where a host of people will be discussing both Gaelic and Sámi languages. They hope to share their knowledge on the promotion of indigenous languages at this event. Further info can be found clicking on the link.

Invitación a presentar comunicaciones en el I Congreso Internacional sobre Paisaje Lingüístico

[ICIPL] Queremos animar a participar a todos los interesados en el estudio del paisaje en sus diferentes vertientes y, en particular, a aquellos que investiguen acerca de la naturaleza del lenguaje y sus manifestaciones en el entorno urbano y rural hispánico.

Liburuak eta artikulu zientifikoak

Euskara bultzatzeko eredu berria: kalean da e5 proiektuaren inguruko argitalpena

[Eusko Ikaskuntza] Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuko lanetatik abiatuta, euskara biziberritzeko eredu berri bat prestatu da. 2016. urtean, Eusko Ikaskuntzak "Euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen (e5)" proiektuari ekin zion.

An empirical investigation of Spolsky's framework applied to family language policy

[International Journal of Bilingual Education] The current study quantitatively applies Spolsky's triangular framework of language policy, including beliefs, practices, and management, to the family domain by investigating language policy in multilingual families.

Anticipating expectations. family language policy and its orientation to the school system

[International Journal of Multilingualism] In this article, I will present the results from a case study with two highly multilingual families in Germany and the parents' orientation to the education system. Findings show that in the case of the two families, teachers do not have extensive direct influence.

Drets lingüísticos i població indígena a l'Argentina: notes des del Chaco – Virginia Unamuno Centro de Estudios del Lenguaje en Sociedad (CELES), Universidad Nacional de San Martín / CONICET

[Blog RLD] L'Argentina és una nació que s'imagina a si mateixa com a monolingüe. Això no és pas casualitat. És el fruit de polítiques lingüístiques orientades al silenciament de llengües diferents del castellà i a l'esborrament de la memòria col·lectiva a través d'un relat històric construït i transmès particularment a través del sistema escolar.

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburuteqi@habe.eus\)](mailto:liburuteqi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

Ikasle etorkinak eta eskola, elkarrekin hazten

[BERRIA] Fenomeno berria izan zen, inork espero ez zuena eta gizartea eta irakaskuntza sistema prestatu gabe harrapatu zituena. Geroztik, esku bete lan izan du hezkuntza sistemak: integrazioa sustatu, ikasleak euskaldundu... Erronkari erantzun diotela uste du.

«Euskalduntzen ahalegin handia egiten da; lortzen dira emaitzak»

[BERRIA] Jaione Garai (Arrasate, Gipuzkoa, 1959) 32 urtean aritu da lanean Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolan (Gipuzkoa), irakasle eta zuzendari gisa, erretiroa hartu zuen arte. Dozena bat urte egin ditu atzeritik etorritako ikasleekin lanean.

"Erronka nagusia eleaniztasuna mantentzea da, baina,aldi berean, hizkuntza gutxitua erdigunera eramatea"

[ARGIA] Artzai Gaspar Arraizak Masterra amaitu baino lehen hasi zen ikertzaile kontratatu bezala UPV/EHUn eta gero suertatu zitzaion doktoretza tesia egiteko aukera. Espainiako Gobernuak FPU kontratu pre-doktorala lortu zuen eta gaur egun, tesiaz gain, Soziolinguistika eskolak ematen ditu EHUn.

Lan munduan euskararen erabilera indartzeko ahaleginean nabarmendu diren enpresa, ikastetxe eta ikasleak aitortu dituzte

[Gipuzkoako Foru Aldundia] Bergarako Miguel Altuna LHII Institutuan elkartu dira erreferente diren Gipuzkoako lantoki, Lanbide Heziketako ikastetxe eta ikasleak, beraien esperientzia publikoarekin partekatu asmoz.

(Lan eskaintza) Hizkuntza plangintzan aritzeko aholkularia

[Elhuyar] Gure lantaldearen parte izan nahi baduzu, bidali zure CVa helbide honetara: aholkularitza@elhuyar.eus. Epea: martxoak 6.



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

emun[®]
Euskara eta
berrikuntza soziala